

UNIBASQEN 2014ko KUDEAKETA PLANA

Edukia

1. 2014ko URTEKO KUDEAKETA PLANAREN AURKEZPENA	3
2. ANTOLAMENDUA HOBETZEKO JARDUNAK.....	4
3. EBALUAZIO PROGRAMAK HOBETZEKO JARDUNAK.....	7
4. KOMUNIKAZIOA, LANKIDETZA ETA INTERES TALDEEN PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO JARDUNAK.....	8

1. 2014ko URTEKO KUDEAKETA PLANAREN AURKEZPENA

Kudeaketa Plan honen xedea 2013-2016 aldirako Unibasqen Plan Estrategikoan ezarritakoa betetzeko 2014an Unibasq Agentziak garatu beharreko ekintzak zehaztea da eta honako ardatz hauen bidez burutuko direnak:

1. **Zuzentzea eta antolatzea**
2. **Pertsonak**
3. **Ebaluazioa**
4. **Lankidetzak**
5. **Komunikazioa**
6. **Ikasleak**

Ardatz horiek helburu eta ekintzetan nola zabaldu behar diren ikusteko, 2013-2016 aldirako Plan Estrategikoari buruzko dokumentua kontsulta daiteke.

2014. urtean, Unibasqek helburu estrategiko hauek lortu nahi ditu:

1. **ENQA elkartean eta EQAR erregistroan sartzea, behin auto-txostena ebaluatuta eta dagokion kanpo bisita eginda.**
2. **Unibasq Agentziaren Kalitatea Kudeatzeko Sistema ziurtatzea, ISO 9001:2008 arauan oinarrituta.**
3. **Ebaluatzeko eta egiaztatzeko programen hobekuntza jarraitua.**

Horregatik, jarraian ardatz bakoitzean jarduera batzuk zehazten dira, 2013-2016 aldirako Plan Estrategikoan aipatutako xedek betetzea lortzeko, eta 2013ko Kudeaketa Planean egin gabe gelditu zirenak edo hobetu zitekeenak garatzeko.

2. ANTOLAMENDUA HOBETZEKO JARDUNAK

Atal honetan, Unibasqen plan estrategikoaren (2013-2016) 1. eta 2. ardatzetan ezarritako helburu eta ekintzak bildu dira, 2014rako Urteko Kudeaketa Plan honetan garatu beharreko jardunak zehaztuta.

1. ardatza: Zuzentzea eta antolatzea

1.1 helburua: baliabideen erabilera eraginkorra ziurtatzea.

Behin bere funtzionamendu egokirako beharrezko baliabideak agentziaren esku jarrita, ekintzak baliabide horiek mantentzea du helburutzat, baita baliabideen mantentze egokia ziurtatzea.

Horretarako hurrengo ekintza burutuko da:

- Mantentze-kontratuen betetze-mailari buruzko txostena egitea eta gorabeherak kudeatzea.

1.2 helburua: informazioaren segurtasuna bermatzea.

Agentziaren dokumentuak kudeatzeko Docuware sistemaren ezarpenaren ondoren, helburu honekin lotutako jarduerak horrela zehaztuko dira

- Dokumentazioa mantentzea eta antolatzea eta hobe daitezkeen arloak aztertzea.

1.3 helburua: datuak babesteari buruzko Legea aplikatzea.

2013an ezin izan ziren aurreikusitako ekintzak burutu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eman behar zuen ikastaro espezifikoak ezin izan zelako egin. Horregatik aurreikusitako ekintzak mantentzen dira:

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Unibasqeko langileei prestakuntza-ikastaroa ematea.
- Prozedura berri bat egitea, agentziaren baitan datuak babesteari buruzko Legearen jarraipen egokia egiteko urratsak eta bitartekoak ezartzea ahalbidetuko duena.

1.4 helburua: barne-antolamendua hobetzea.

Helburu honi dagozkion ekintzak 2013. urtean hasi zirenak hurrengoetan zehaztuko dira :

- Kalitate Batzordeak kalitate-eskuliburu berria bukatzea.
- Zeregin eta jardueren mapa egitea, lanaren banaketa eraginkorra ahalbidetzen duena.

1.5 helburua: kalitatea bermatzeko barne-sistema ziurtatzea.

1.5.1, 1.5.2, 1.5.3, 1.5.4 eta 1.5.5 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Egindako "ISO 9001 Kalitatearen Kudeaketa" on line ikastaroaren eragina baloratzea eta kalitatearen arloko formakuntza behar berriak aztertzea.

- Agentziaren prozesu eta azpi-prozesu bakoitzean zehaztutako eskuliburuak, prozedurak, fluxugramak eta beharrezko dokumentuak egitea eta dagokion dokumentazioa aztertzea.
- Kalitate Batzordearen eskumenak eta funtzioak aztertzea.

1.6 helburua: arriskuen kudeaketako eta barne-kontrolako eginkizuna ezartzea.

1.6.1, 1.6.2 eta 1.6.3 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Prozesu guztietan atzemandako arrisku nagusiak identifikatu eta deskribatzea.
- Atzemandako arriskuen azterketari eta kontrolari buruzko beharrezko dokumentu guztiak (Eskuliburu, prozedura,...) eta ekintza-plana egitea.

1.7 helburua: agentziaren jardueraren onspena lortzea, nazioarteko estandarrei jarraiki.

Helburu honi dagozkion ekintzak GHEEan Kalitatea Bermatzeko Irizpideak eta Jarraibideak oinarritzat hartuz egingo den kanpo ebaluazioan gauzatuko dira, behin aldeko ebaluazioa lortuz ENQA elkartearen eta EQAR erregistroan sartzea ahalbidetuko direnak.

1.8 helburua: autonomia eta independentzia indartzea erakundearen funtzionamenduan, indarreko lege-esparrua oinarritzat hartuta.

1.8.1 eta 1.8.2 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Agentziaren barruan Etika Batzordea finkatzea, haren eskura haren eginkizunak betetzeko behar adina tresna eta eskumenak jarritz.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin programa-kontratu bat sinatzea.

1.9 helburua: agentziaren baitan eta unibertsitateekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, erakunde-ebaluazioko eta prospektibako ebaluazio-programa berrien inguruko gogoeta sustatzea.

- 1.9.1 ekintzaren bitartez, euskal unibertsitate-sisteman inplikaturako eragileekin (hau da, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekin, programen ebaluatzaileekin eta eskatzaile eta ikasleekin) bilerak egiten jarraitu nahi da euskal unibertsitate-sistemaren kalitateaz hitz egiteko.
- Aurreko puntuan aipatutako bileren akordio eta konpromisoen aktak egitea, eta Extranet-en bidez interesdunen esku jartzea.

2. ardatza: pertsonak

2.1 helburua: agentziaren prestakuntza-politika garatzea.

2.1.1, 2.1.2, 2.1.3 eta 2.1.4 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Unibertsitateekiko, ebaluatzaileekiko, eskatzaileekiko, ikasleekiko eta agentziako langileekiko prestakuntza-saioak.

2.2 helburua: langileen garapen profesionala erraztea.

2.2.1, 2.2.2, 2.2.3, 2.2.4, 2.2.5, 2.2.6, 2.2.7 eta 2.1.8 ekintzak honako hauen bitartez gauzatzen dira:

- Aldian behin koordinazio-bilerak egitea, Agentziako langile guztien parte-hartzearekin.
- Unibasqen barruan zenbait lantalde sortzea.
- Langileen eta haien premien gogobetetze-maila neurtzea.
- Datozen urteetarako Enpresa Ituna berraztertzea, eztabaidatzea eta erabakitzea.

2.3 helburua: barne-kontrola hobetzeko prozesuak sendotzea.

2.3.1 ekintza. Lehendik dauden prozesuak ebaluatzea eta prozesu berriak ikertzea, barne-kontrola hobetzeko eta prozesu horiei dagozkien jardunak betetzeko.

2.4 helburua: ebaluatzaile-bankua.

Helburu honi dagozkion ekintzak, behin ebaluatzaile-bankua aplikazio informatikoa garatuta, hurrengoan gauzatuko dira:

- Ebaluatzaileen kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna ziurtatzea.

3. EBALUAZIO PROGRAMAK HOBETZEKO JARDUNAK

3. ardatza: ebaluazioa

3.1 helburua: Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integralaren barruan neurriak eta prozedurak zehaztea, ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesuak etengabe hobetzeko.

3.1.1 eta 3.1.2 ekintzak honako hauen bitartez gauzatzen dira, oro har eta espezifikoki, jarraian zerrendatzen diren ebaluazio-programa bakoitzean:

- Ebaluazio-prozesuak etengabe hobetzeko neurriak eta prozedurak ezartzea, eta prozedura horiek jarraitzea, aztertzea eta hobetzea.
- Eskatzaileei txostenak eta inkestak egitea, ebaluazio-prozesuen jarraipena egiteko.

Irakasle eta ikertzaileak ebaluatzeko eta egiaztatzeko programa.

- Irakasle eta ikertzaileak egiaztatzeko programaren ohiko deialdi bat eta deialdi berezi bat egitea.
- Batzordeetako lehendakariekin bilerak egitea, irakasle eta ikertzaileak egiaztatzeko programa hobetzeko eta horri buruzko gogoeta egiteko.

EHUko lan-kontratu iraunkorreko irakasle eta ikertzaileen ikertze-jarduera ebaluatzeko programa (seiurtekoak).

- Irakasle eta ikertzaileen ikertze-jarduera ebaluatzeko programaren deialdi berria egitea.
- Aipatutako programa hobetzeko parte-hartzen duten agenteekin bilerak egitea,.

EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari-osagarri gehigarri buruzko programa

- Deialdi berria egiten den zain.

Titulazioak ebaluatzeko eta egiaztatzeko programak.

- Euskal Unibertsitate Sistemaren titulu ofizialak ebaluatu eta egiaztatzearekin zerikusia duten programen garapenarekin jarraitzea.
 - Titulu ofizialen ebaluazioa, baimenaren aurreko txostena emateko.
 - Titulu ofizialen jarraipena.
 - Egiaztapena berritzea. Deialdi pilotua.
- EHUren berezko tituluak ebaluatzea.
- Hezkuntza artistikoak ebaluatzea.

Erakunde-ebaluazioko programak

- AUDIT programa
 - Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integralen ezarpena ziurtatzeko deialdia garatzea (AUDIT programa)
 - Parte hartzen duten gainerako agentziekin batera, azterketari eta hobekuntzari ekitea.

DOCENTIA programa.

- EHUko DOCENTIAZ programaren ezarpeneko laugarren urtearen jarraipena eta Mondragon Unibertsitatearen DOCENTIA programaren eredu berria ebaluatzea.
- Aldian behin DOCENTIA Batzordearekin biltzea.

Euskal Unibertsitate Sistemaren unibertsitateen programa-kontratuak.

- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen programa-kontratuen betetze-mailari buruzko txostenak ematea.

3.2 helburua: Euskal Unibertsitate Sistemari inplikaturako eragileekiko hobekuntza eta prospektiba bultzatzea, ebaluazio-programak hobetzeko.

3.2.1, 3.2.2, 3.2.3 eta 3.2.4 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Gogoeta eta hobekuntza sustatzeko bilerak egitea.
- Prozesuetan inplikaturako pertsonen gogobetetze-inkestak egitea.
- Ebaluazio-prozesuen meta-ebaluazioa egitea, ebaluatzaileen eskutik.
- Ebaluazioetako emaitzetan jarraipen-prozesuak ezartzea.

3.3 helburua: ebaluazioa garatzea, nazioartean onetsitako jarraibide eta estandarrei jarraiki.

- Helburu hau Agentziaren ebaluazio guztietan islatzen da, guztiak GHEEan Kalitatea Bermatzeko Irizpideak eta Jarraibideen arabera egiten baitira.

3.4 helburua: ebaluazio-prozesuen burokratizazioa arintzea.

3.4.1, 3.4.2, 3.4.3 eta 3.4.4 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Administrazio elektronikoa Agentziaren programetan ezartzearekin jarraitzea.
- Aplikazio informatikoak mantentzen jarraitzea, hobetzeko helburuarekin.
- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekiko hitzarmenak sustatzeko aukera aztertzea, curriculum normalizatua garatzeko eta ebaluazio-prozesuei buruzko ofiziozko informazioa elkartrukatzeko.
- Kolektibo profesionalen hitzarmenak sustatzeko aukera aztertzea, curriculum normalizatua garatzeko eta ebaluazio-prozesuei buruzko ofiziozko informazioa elkartrukatzeko.

4. KOMUNIKAZIOA, LANKIDETZA ETA INTERES TALDEEN PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO JARDUNAK

4. ardatza: Lankidetzak

4.1 helburua: Goi-mailako Hezkuntza Sistemaren itxaropenak eta premiak betetzea.

4.1.1, 4.1.2, 4.1.3 eta 4.1.4 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Interes-taldeekin bilerak egitea.
- Azterlanak egitea eta argitaratzea, ahalmen ekonomikoaren arabera.
- Jasotako iradokizunak aztertzea eta horiei erantzutea.

4.2 helburua: unibertsitateen eta gainerako agenteen artean jardunbide egokiak transmititzeko bitartekari izatea.

4.2.1 ekintza honako honen bitartez gauzatuko da:

- Hirugarren sinposioa egitea.
- Inplikaturako eragileen eta interes-taldeen artean jardunbide egokiak zabaltzeko jardunaldiak, ikastaroak eta prestakuntza-bilerak egitea.

4.3 helburua: Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruaren eta beste esparru batzuen kalitatea bermatzeko sare eta agentziekiko harremanak areagotzea eta sendotzea.

4.3.1, 4.3.2, 4.3.3 eta 4.3.4 ekintzak honako hauen bitartez gauzatzen dira:

- REACUko bileretan parte hartzen jarraitzea.
- Agentzia-sareetako lantaldeetan parte hartzen jarraitzea.
- Unibasqen eta beste agentzia batzuen arteko lankidetzak-hitzarmenak aztertzea eta, hala badagokio, egitea.
- Beste ebaluazio-agentzia batzuekiko bisitaldiak eta bilerak egitea.
- Espainiako Unibertsitateen Kalitatearen Kanpo Ebaluazioaren egoerari buruzko txostena egiteko laguntza ematen jarraitzea.
- Berrikuntza-proiektuak garatzea beste agentzia edo interes-talde batzuekin elkarlanean, interes komuneko jarduerak garatzeko.
- Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekiko lankidetzari eustea, kalitatea hobetzeari buruzko interes komuneko proiektuetan.

5. ardatza: Komunikazioa

5.1 helburua: erabiltzaileen premien berri izatea, premia horiek betetzeko.

5.1.1, 5.1.2 eta 5.1.3 ekintzak honako hauen bitartez gauzatzen dira:

- Iradokizunen erregistroa abian jartzea, iradokizunei emandako erantzuna edo tramitea jarraitu ahal izateko.
- 4.1 helburuan azaldutakoak.

5.2 helburua: prozesuei buruzko informazioa bermatzea erabiltzaileei, fase guztietan.

- Prozedura, berritasun, aldaketa eta jardunaldiak zerikusia duen informazio guztia argitaratzea eta eguneratzea, web-orriaren, e-mailaren eta administrazio elektrikoaren bitartez.

5.3 helburua: kalitate-arloan jardunbide egokiak hedatzeko plana egitea.

5.3.1, 5.3.2 eta 5.3.3 ekintzak honako hauen bitartez gauzatzen dira:

- Gidak, memoriak eta Agentziaren jardueri buruzko txostenak egitea.
- Bigarren eta hirugarren sinposiotik ateratako laburpenen berri ematen duen txostena egitea.
- 4.2 helburuan azaldutakoak .

5.4 helburua: web-orria mantentzea eta nazioarteko gardentasun-estandarretara egokitzea.

- 1.7 helburuan azaldutakoak .

5.5 helburua: irudi korporatiboa eta estiloa mantentzea agentziak ematen dituen dokumentu guztietan.

- Ezarritako irudi korporatiboa eta estiloa mantentzea Agentziaren eta dokumentu guztietarako zabaltzea.

5.6 helburua: aldi-aldi langileak koordinatzeko bilerak egitea.

- Agentziako langile guztien aldi behingo koordinazio-bilerak, eta bilerei buruzko aktak egitea.
- Bere formatu, maiztasuna eta eraginkortasuna aztertzea.

5.7 helburua: Agentziaren Zerbitzu Karta egitea eta argitaratzea.

- Hala badagokio, argitaratutako Agentziaren Zerbitzu Kartaren edukiak egokitzea.

5.8 helburua: interes-taldeak prestatzea Agentziaren eskumeneko eremuekin zerikusia duten gaitan.

- Interes-taldeentzako prestakuntza-jardunaldiak egitea.
- Prestakuntza-jardunaldiak ebaluatu, aztertu eta hobetzea.

6. ardatza: Ikasleak

6.1 helburua: ikasleek agentziaren jardueretan parte hartzen dutela bermatzea.

6.1.1 eta 6.1.2 ekintzak honako hauen bitartez gauzatuko dira:

- Ikasle-elkarteekin harremanetan jartzea, Agentziaren baitan parte har dezatela sustatzeko.
- Ikasleen Aholku Batzordea sortzea.
- Ikasleen Aholku Batzordearen bidez, Agentziaren jardueretan ikasleen parte-hartzea aztertzea.

6.2 helburua: ikasleek agentzien jardueretan parte har dezaten sustatzea, eta haien inplikazioa indartzea.

- 6.2.1 ekintza ikasleak prestatzeko ikastaroak eginez gauzatzen da. Halaber, jarduera aztertuko da.

6.3 helburua: ikasleen ordezkartza-organoekiko lankidetzeta-mekanismoak ezartzea.

- Ikasleen ordezkartza-organoekin bilerak egiten jarraitzea.